



Lekualdatze lehiaketaren (LALaren) GORABEHERAK!

Otsailaren 19an Mahai Negoziatzailearen bilera egon zen.
Steilas sindikatuak dio:

1.-LAL araudi bat garatu behar da finkoen eskubideak bermatzeko eta ez Enpresak dituen arazoak partxeatzeko.

2008tik aurrera enpresak garatua izan beharko luke L.A.L.(leku aldatze lehiaketa), hau da, langile finkoak zituen momentutik. Hori egin beharrean kontzeptu berri bat asmatu zuen "berratzikepena". Bitan martxan jarri da prozesu hau araudian irizpide desberdinak erabiliz, langileei nahasmena sortuz.

L.A.L., finkoak daukaten eskubidea da, beraz araudian ez dira agertu behar inondik inora ordezkokoak eta beraien lan baldintzak.

Enpresak aurkeztutako LAL araudiarekin %90ean ados gaude. Ondorioz indarrean dauden LEPko kontratuen iraungipenarekin bakarrik ez gatoz bat, 4.artikuluarekin hain zuzen ere.



2.- Enpresaren eskaintza: "Lehenengo LAL egitearekin batera matrikulazioaren %5a baino gutxiago jaitsiko balitz, galdutako Lep arteko kontratuen kopurua berriro kontratatuko luke. Ordezkoen zerrendaren arabera." "Hurrengo LAL deialdietarako Enpresak ez du konpromisurik hartzen."

Beraz, sinatu ondoren ordezkoak kaleratzeko atea zabalik geldituko da.

Zenbateko matrikula jaitsiera izan dugu azkeneko 2 urteetan? Zein matrikulazio data hartuko dute kontutan, maiatzekoa, iralekoa edo urtarrilekoa? Denak? Batzuk?

Zertarako apurtu kontratuak, gero beste batzuk eskaintzeko? Non dago iruzurra?

Enpresak zerrendaren erabilera aitzakiatzat hartzen du, apurtuko diren kontratuak ez dira galduko zerrendaren arabera, berriz emango direlako. Lanean dauden Lep arteko batzuen kontratuak bakarrik jarriko dira arriskuan, hau da, enpresak LAletan ateratzen dituen lanpostuen arabera eta finkoen aukeraketaren arabera. Guztiz aleatorioa dena. (Adibidez: 300.ak bere kontratua gal dezake 50. dagoenak hartzeko eta 341.ak mantenduko luke bere kontratua, lanpostuen zerrendan agertu ez delako edo finkoek aukeratu ez dutelako. Non geratzen zerrendaren gardentasuna? Beti zortearen menpe geldituko da kontratuen mantentzea edo apurtzea?)

Enpresak eskaintzen duena dagoen bezala onartuz gero, etorkizunean atea zabalik uzten ditugu apurtzen diren kontratuak betiko galtzeko. Haurreskolak Partzuergoak LEPartekoak apurtzeko duen helburua bideratuz.



3.- Sindikatu honek ez du babestuko kontratuen baldintzak errespetatzen ez duen dokumenturik. Kasu honetan Lep arteko kontratuen iraungipena ahalbideratzea LAL baten bitartez.

Lep arteko kontratuetan klausula gehigarrietan, zehazten da, **LEP** baten bitartez iraungitzen dela kontratu hori.

Beraz, sindikatu hau ez dago kontratuak ez betetzearen alde, are gutxiago langileon lan baldintzak kaskartzeko prozesuak babesteko prest.

Informazio gehiago nahi izanez gero jarri gurekin harremanetan.

**2015-02-25
Steilas**